



**Ikastetxeko diagnosis egiteko
tresna**

BRANKA 2009

Neur-kareletik,
hizkuntza egoeraren popatik brankara

Gidaliburua



**HIZKUNTZA NORMALKUNTZA PROGRAMA
NOLEGA – EUSKARA ZERBITZUA
HEZKUNTZA SAILA**

ZER DA BRANKA?

Ikastetxeetako Hizkuntza Normalkuntza xedea duela, Ulibarri Programak hizkuntzaren egoera neurtu eta ebaluatzeko dituen tresnetako bat da.

Brankak, euskararen egoeraren diagnostia egiteaz gain, planifikatzeko lagungarria da, talde dinamika zein ikastetxeen kudeaketa landu eta hobetzeko balio du, eta behin baino gehiagotan egindakoa, ikastetxearen ibilbidea ebaluatzeko edo behatzeko ere bai.

NON DAGO BRANKA?

Ulibarri Programaren web gunean, www.ulibarri.info-n sartu eta ondoren azaltzen den ibilbidea egin:

- **DATUTEGIAN** sartu ondoren honelako pantaila bat ikusiko da:

IDENTIFIKAZIO DATUAK	URTEZ URTEKO PLANGINTZA
Helbidea:	• 2002-2003 ikasturtea
Udalerria:	• 2003-2004 ikasturtea
Posta kodea:	• 2004-2005 ikasturtea
Lurraldea:	• 2005-2006 ikasturtea
Berritzegunea:	• 2006-2007 ikasturtea
Koordinaziogunea:	• 2007-2008 ikasturtea
Telefonoa:	• 2008-2009 ikasturtea
Faxa:	
Helbide elektronikoa:	
Webgunea:	
Noiztik ulibarri..	
Sarea:	
HIZKUNTZA NORMALKUNTZA PROIEKTUA (HNP)	DIAGNOSI TRESNAK
• HNP Ziurtagiria deskargatu	Branka: 2002-2003 , 2003-2004 , 2004-2005 , 2005-2006 , 2006-2007 , 2008-2009
• 2006-2010	Aurtengo bete
	Mintzagrama: 2005-2006 , Sortu aurtengoak
	Gela-argazkia: 2008-2009 , Sortu aurtengoak

- **DIAGNOSI TRESNAK** atalean **Branka: [Aurtengo bete](#)** aukeraren gainean sakatu eta Brankaren atalen zerrenda agertuko da:

BRANKA

Sarrera | [Azalpenak](#) | [Emaitzak](#)

Brankako atalak

- 1. Identifikazio datuak
 - 1.1. [Hizkuntza ereduak](#)
- 2. Eremu instituzionala
 - 2.1. [Antolakuntza, Organo Gorena](#)
 - 2.2. [Antolakuntza, Eskola Kontseilua](#)
 - 2.3. [Antolakuntza, Zuzendaritza](#)
 - 2.4. [Hizkuntza idatziaren erabilera](#)
 - 2.5. [Kanpo-harremanak](#)
 - 2.6. [Espazioaren hizkuntza antolaketa, Paisaia,](#)
- 3. Eskolako kideak
 - 3.1. [Ikasleen jatorrizko hizkuntza](#)
 - 3.2. [Ikasleak, Euskara ikasgaia,](#)
 - 3.3. [Ikasleen mintzagrama](#)
 - 3.4. [Irakasleen ezaqutza eta prestakuntza](#)
 - 3.5. [Irakasleen mintzagrama](#)
 - 3.6. [Administrazio eta zerbitzuetako langileak: ezaqutza, prestakuntza eta ahozko erabilera](#)
 - 3.7. [Gurasoen ezaqutza eta ikastetxearekin ohiko komunikazio hizkuntza](#)
- 4. Gelaz kanpoko jarduerak
 - 4.1. [Eskola eragile](#)
 - 4.2. [Elkarteak/Erakundeak eragile](#)
 - 4.3. [Udalerria](#)
- 5. Emaitzak
 - 5.1. [Emaitzak ikusi](#)

BRANKA ATALETZ ATAL

Brankak 5 atal ditu: ikastetxeko hizkuntzaren egoeraz gogoeta egiteko aintzat hartzen diren 3 eremuak (*EREMU INSTITUZIONALA, ESKOLAKO KIDEA ETA GELAZ KANPOKO JARDUERAK*), ikastetxearen hizkuntza eredia identifikatzeko atala, eta diagnosiaren emaitzak ikusteko aukera.

EREMU INSTITUZIONALEAN ikastetxearen aginte organoek duten hizkuntzarekiko ezagutza eta ohiturak hausnartzen dira, alde batetik; eskola kudeatzeko erabiltzen diren dokumentuak zein hizkuntzatan sortu diren eta zeinetan erabiltzen diren deskribatzen da, bestetik; eta baita ikastetxea erakunde bezala nola komunikatzen den beste erakundeekin eta bere inguruarekin ere behatzen da.

ESKOLAKO KIDEEI dagokien eremuan, ikasle, irakasle, langile ez-irakasle, eta gurasoen hizkuntzarekiko ezagutza zein hizkuntza ohiturak behatzen dira, beti ere, ikastetxeari dagokion alorrean.

GELAZ KANPOKO JARDUERAK eremuan, ikastetxeak ikasgelaz kanpo eragiten dituen ekintza guztiak hausnartzen dira, hizkuntzaren presentzia eta erabilera erkatuz.

Hiru eremuen azterketak ikastetxearen hizkuntzen egoeraren berri zehatza emango digu, baita ikastetxea kokatuta dagoen testuinguru soziolinguistikoarekin parekatzeko aukera ere. Horrela, ikastetxea eta bere testuingurua osotasunean hartuta, zer hobetu eta zein esparrutan hobetu behar den ulertzen lagunduko digu; HN proiektua diseinatzerakoan zertan eragin dezakegun, alegia.

1. Identifikazio datuak

1.1. Hizkuntza ereduak

Atal honetan ikastetxean dauden hizkuntza ereduak eta plan honen ereduak jaso behar dira. G eta X aukerak Nafarroako eta Iparraldeko ikastetxeentzat dira.

BRANKA

[Sarrera](#) | [Azalpenak](#) | [Emaitzak](#)

Brankako atalak: 1.1 | [2.1](#) | [2.2](#) | [2.3](#) | [2.4](#) | [2.5](#) | [2.6](#) | [3.1](#) | [3.2](#) | [3.3](#) | [3.4](#) | [3.5](#) | [3.6](#) | [3.7](#) | [4.1](#) | [4.2](#) | [4.3](#)

1.1. Hizkuntza ereduak

Atal honetan ikastetxean dauden hizkuntza ereduak eta plan honen ereduak jaso behar dira. G eta X aukerak Nafarroako eta Iparraldeko ikastetxeentzat dira

	A	B	D	G	X
Ikastetxeko hizkuntza ereduak (?)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Plan honek zein hizkuntza eredutan eragingo duen (?)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Hizkuntza ereduak: Ierro honetan ikastetxeak dituen hizkuntza ereduak jaso behar dira.

Plan honek zein hizkuntza eredutan eragingo duen: Ikastetxearen hizkuntza ereduak bat baino gehiago izatekotan, baten edo biren diagnostia egin daiteke. Hala ere, ikastetxearen osotasuna kontuan hartuta, guztien diagnostia egitea hobesten da. Beraz, ikastetxearen hizkuntza eredu guztiak jartzea komeni da.

2. Eremu instituzionala

2.1 Antolakuntza.Organo Gorena

Hainbat ikastetzek ez dute atal hau bete behariko, hurrengoa baizik (2.2. Antolakuntza. Eskola Kontseilua). Organo gorena, ikastetxeko erabakigune nagusia da. Kasu askotan, Organo Gorena Eskola Kontseilua denez, hurrengo atala bete behar da, honen ordean.

Zenbait ikastetxetan, Organo Gorena Artezkaritza Batzordea, Aginte Organoa edo Zuzendaritza Batzordea da. **Hauen kasuan baino ez da atal hau bete behar.**

2.1. Antolakuntza. Organo Gorena

Hainbat ikastetzek ez dute atal hau bete behariko, hurrengoa (2.2. Antolakuntza organoa. Eskola Kontseilua) baizik. Organo gorena, ikastetxeko erabakigune nagusia da. Kasu askotan, Organo Gorena Eskola Kontseilua edota Artezkaritza Batzordea denez, hurrengo atala bete behar da, honen ordean.

Zenbait ikastetxetan, Organo Gorena, Aginte Organoa edo Zuzendaritza Batzordea da. **Hauen kasuan baino ez da atal hau bete behar.**

		Euskararen ezagutza		Ahozko erabilera. Ohiko komunikazio hizkuntza.		
#	Organo gorena: kidea	Ahozkoa	Idatzizkoa	Titulazioa	Euskara	Erdara
Sartu datuak beheko taulan (?)						
#	Organo gorena: kidea (?)	Ahozkoa	Idatzizkoa	Titulazioa	Euskara	Erdara
1		Ezer ere ez	Ezer ere ez		0	0
2		Ezer ere ez	Ezer ere ez		0	0
3		Ezer ere ez	Ezer ere ez		0	0
4		Ezer ere ez	Ezer ere ez		0	0
5		Ezer ere ez	Ezer ere ez		0	0
6		Ezer ere ez	Ezer ere ez		0	0
7		Ezer ere ez	Ezer ere ez		0	0
8		Ezer ere ez	Ezer ere ez		0	0
9		Ezer ere ez	Ezer ere ez		0	0
10		Ezer ere ez	Ezer ere ez		0	0

Gorde

Atal hau betetzeko aintzat hartzekoak:

Ahozko erabilera.Ohiko komunikazio hizkuntza: 0-9ko eskala da. 0 minimoa, ez du erabiltzen; 9 maximoa, beti erabiltzen du. Gogoan izan pertsona bakoitzeko bi hizkuntzak bete behar direla, eta hizkuntza bien baturak 9 izan behar duela.

Datuak beheko taulan sartu behar dira, eta **Gorde** botoian sakatuz, goiko taulan finkatuta geratuko dira. Hainbat kideren datuak gorde ondoren, gehiago sartzeko aukera dago. Datuak goiko taulan kokatu direnean, ezin da aldaketarik egin, baina sarrera hori ezaba daiteke, eta behekoan behar bezala idatzi, berriro.

Kideen datuak: Datuen babeserako legea dela eta, ezin dira izen abizenak jarri hemen. Horretarako estekatutako taula erabili behar da, eta proiektua inprimatzen denean, eranskin moduan jarri. Taularen adibidea:

Branka betetzeko jarraibideak

ERANSKINA: Identifikazio datuak

2.1. ANTOLAKUNTZA: ORGANO GORENA

Kodea *	Izen abizenak

*Kodea: Ikastetxe bakoitzak asmatu dezake nahitaez duen kodea, adibidez gurasoen kasuan G01 Miran Edume Etorza Gomez edota ikastetxea denean IR01 Pabxi Bejarrieta Irujoa.

2.2 Antolakuntza. Eskola Kontseilua

Ikastetxe guztiek bete behar dute atal hau. Zenbait ikastetxetan Eskola Kontseiluari Artezkaritza Batzordea deitzen zaio.

Atal hau betetzeko jarraibideak aurreko ataleko berberak direnez, **2.1 Antolakuntza. Organo Gorena** atalak dakarrenari jarraitzea gomendatzen da.

2.3 Antolakuntza. Zuzendaritza

Atal honetan zuzendaritzako kidearen kargua jarri behar da.

Atal hau betetzeko jarraibideak lehengo ataleko berberak direnez, **2.1 Antolakuntza. Organo Gorena** atalak dakarrenari jarraitzea gomendatzen da.

2.4 Hizkuntza idatziaren erabilera

[Sarrera](#) | [Azalpenak](#) | [Emaitzak](#)

Brankako atalak: [1.1](#) | [2.1](#) | [2.2](#) | [2.3](#) | [2.4](#) | [2.5](#) | [2.6](#) | [3.1](#) | [3.2](#) | [3.3](#) | [3.4](#) | [3.5](#) | [3.6](#) | [3.7](#) | [4.1](#) | [4.2](#) | [4.3](#)

2.4. Hizkuntza idatziaren erabilera

Bete idatzizko erabilera zein hizkuntzatan egiten den, alorrez-alor, beheko formularioan

	Idatzizko erabilera
Hezkuntza proiektua	_____ ▾
Curriculum proiektua	_____ ▾
Hizkuntza proiektua	_____ ▾
AJA	_____ ▾
Ikastetxeko kudeaketa plana	_____ ▾
Aurrekontua	_____ ▾
Urteko memoria	_____ ▾
Dok. administratiboak - ekonomia	_____ ▾
Aktak	_____ ▾
Ebaluaketa txostenak	_____ ▾
Oharrak	_____ ▾
Inprimakiak, agiriak	_____ ▾
Ordenagailuak	_____ ▾
Bestelakoak (jantokiko menua...)	_____ ▾

Bertan erantzun beharrekoa da dokumentu/txosten/euskarri bakoitza euskaraz sortua izan ote den, erdaraz sortua izan ote den, elebietan dagoen baina euskaraz sortua edo elebietan dagoen baina erdaraz sortua.

Honetaz gainera, azken aurreko aukeran, ordenagailuetan hain zuzen ere, ikastetxean dugun ordenadore kopuru osoa sartu behar dugu eta hauetatik zenbatek duten interfazea euskaraz.

2.5 Kanpo harremanak

Jarraian agertzen diren erakundeekin, zein hizkuntzatan komunikatzen den ikastetxea **Bi zutabeak bete behar dira.**

2.5. Kanpo-harremanak

Jarraian agertzen diren erakundeekin, zein hizkuntzatan komunikatzen da ikastetxea? Bi zutabeak bete behar dira.

	Ahozko erabilera	Idatzizko erabilera
Ikastetxeekin	----- ▾	----- ▾
Berritzegunearekin	----- ▾	----- ▾
Hezkuntza administrazioarekin	----- ▾	----- ▾
Instituzioekin	----- ▾	----- ▾
Elkartekin	----- ▾	----- ▾
Enprekin	----- ▾	----- ▾
Hornitzaileekin	----- ▾	----- ▾
Bestelakoak	----- ▾	----- ▾

2.6 Espazioaren hizkuntza antolaketa. Paisaia

Atal honetan gela barruko baliabide didaktikoak ez dira kontuan hartu behar, ezta hizkuntza bakoitzari erreserbatutako berariazko espazioak ere.

Bestelakoak atalean, aintzat har daitezkeen beste alorren artean, ordenagailuen interfazeak zein hizkuntzatan dauden behatzea proposatzen da.

2.6. Espazioaren hizkuntza antolaketa. Paisaia

Atal honetan gela barruko baliabide didaktikoak ez dira aintzat hartzen

	Presentzia / Ezagutza
Ikastetxearen izena	----- ▾
Ikasgelen rotulazioa	----- ▾
Aretoen rotulazioa	----- ▾
Iragarki taulak	----- ▾
Oharrak, posterrak	----- ▾
Bestelakoak (ordenagailuetako interfazeak...)	----- ▾

3. Eskolako Kideak

OHARRA: Ikasleen eta irakasleen atalak bete ahal izateko, aurretik *IKASTETXEKO DATU OROKORRAK* atalean *IKASGELAK* eta *IRAKASLE TALDEAK* azpiatalak bete behar dira. Bestela, taula hutsik agertuko da.

3.1 Ikasleen jatorrizko hizkuntza

Zein da ikasleen jatorrizko hizkuntza? Lehen hizkuntzari buruz ari garenean, umeak hiru urte bete arte gurasoengandik edo umearekin bizi diren senitartekoengandik jasotako hizkuntzari edo hizkuntzei buruz dihardugu (IV. Mapa Soziolinguistikoa 2006, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 2009)

OHARRA: Eremu hau osatu aurretik, **Ikasturte honetako datu orokorrak** atalean **Ikasgelak** azpiatalak beteta egon behar duela gogoratu.

OHARRA: Datuen babeserako legea dela eta, ezin dira izen abizenak jarri hemen. Horretarako [hemen estekatutako taula](#) erabili behar duzu eta proiektua inprimatzen denean, eranskin moduan jarri.

BRANKA

[Sarrera](#) | [Azalpenak](#) | [Emaitzak](#)

Brankako atalak: [1.1](#) | [2.1](#) | [2.2](#) | [2.3](#) | [2.4](#) | [2.5](#) | [2.6](#) | [3.1](#) | [3.2](#) | [3.3](#) | [3.4](#) | [3.5](#) | [3.6](#) | [3.7](#) | [4.1](#) | [4.2](#) | [4.3](#)

3.1. Ikasleen jatorrizko hizkuntza

Zein da ikasleen jatorrizko hizkuntza? Lehen hizkuntzari buruz ari garenean, umeak hiru urte bete arte gurasoengandik edo umearekin bizi diren senitartekoengandik jasotako hizkuntzari edo hizkuntzei buruz dihardugu (IV. Mapa soziolinguistikoa, 2006, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz 2009)

Idatzi kopuru absolutuak (zenbaki gordina: 10, 11...) dagokion eremuan. Gogoan izan guztiaren baturak ikasle kopurua izan behar duela emaitza; bestela, errorea emango du.

Gogora ezazu erdara euskara ez den edozein hizkuntza (gaztelania, frantsesa, txinera, arabiera..) dela.

Ikasgela	Kopurua	Euskara	Erdara	Biak
HH0-A	16	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
HH0-B	16	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
HH0-C	15	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
HH1-A	17	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
HH1-B	18	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
HH2-A	17	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
HH2-B	20	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
HH3-A	17	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>

Atal hau betetzeko aintzat hartzekoak:

Kopuru absolutuak (zenbaki gordina: 10, 11...) idatzi behar dira, dagokion eremuan. Gogoan izan guztiaren baturak adierazitako ikasle kopurua bera izan behar duela; bestela, errorea emango du.

Gogoratu erdara euskara ez den edozein hizkuntza (gaztelania, frantsesa, txinera, arabiera..) dela.

3.2 Ikasleak. Euskara Ikasgaia

3.2. Ikasleak. Euskara ikasgaia.

Idatzi ikasgela horretako ikasleen "Euskara eta literatura" edo "**Komunikazio arloa**" ikasgaiaren batz besteko nota. Horretarako, iazko urte amaierako notez baliatuko zara.

Ikasgela	Batzbesteko nota
HH0-A	Aukeratu
HH0-B	Aukeratu
HH0-C	Aukeratu
HH1-A	Aukeratu
HH1-B	Aukeratu
HH2-A	Aukeratu
HH2-B	Aukeratu
HH3-A	Aukeratu
HH3-B	Aukeratu
LH1-B (BERDEA)	Aukeratu
LH1-G (GORRIA)	Aukeratu
LH1-H (HORIA)	Aukeratu
LH1-U (URDINA)	Aukeratu
LH2-B (BERDEA)	Aukeratu
LH2-G (GORRIA)	Aukeratu

Idatzi ikasgela horretako ikasleen "**Euskara eta literatura**" edo "**Komunikazio arloa**" ikasgaiaren batz besteko nota. Horretarako, iazko urte amaierako notez balia zaitezke.

3.3 Ikasleen mintzagrama

Mintzagrama ahozko erabilera neurtzeko tresna garrantzitsua dugu. Mintzagramak, taldeko harreman-sarea nolakoa den hizkuntza bakoitzean adierazten du, taldearen hizkuntza joera eta intentsitatea. Baliabide honen inguruko argibide gehiago berari buruz egindako txostenean aurki daitezke, edo www.ulibarri.infon **MINTZAMANUALA** deritzan dokumentuan, besteak beste, bai bere funtzionamenduaren zergatiak, bai bertan agertzen diren kontzeptuen inguruko azalpenak, bai erabilitako oinarri matematikoak...

MINTZAGRAMAn datuak sartu ahala, automatikoki, taula honetan agertuko dira.

3.3. Ikasleen mintzagrama

Ikasgela guztien mintzagramak bete behar dira brankak erabilera indizeak kontuan hartzeko.

Haur hezkuntzaren kasuan, bi modutara bete daitezke galdekizuna: zuzenean ikasleei galdetuta, edo irakaslearen behaketa zuzenaren ondorioak aintzat hartuz

Bertan duzu ikasleei banatzeko [galdekizun eredu](#)

Ikasgela	Kopurua(n)	Euskararen aldeko hitzen aktiboak (a)	Gaztelazko aldeko hitzen aktiboak (b)	Hitzun pasiboak (c)	Erabilera
HH0-A	16				Sortu
HH0-B	16				Sortu
HH0-C	15				Sortu
HH1-A	17				Sortu
HH1-B	18				Sortu
HH2-A	17				Sortu
HH2-B	20				Sortu
HH3-A	17				Sortu
HH3-B	17				Sortu
LH1-B (BERDEA)	13				Sortu
LH1-G (GORRIA)					Sortu
LH1-H (HORIA)					Sortu
LH1-U (URDINA)					Sortu
LH2-B (BERDEA)					Sortu

Atal hau betetzeko aintzat hartzeakoak:

Edozein kasutan, ikasgela guztien mintzagramak bete behar dira, Brankak erabilera indizeak kontuan hartzeko.

Haur Hezkuntzaren kasuan, bi modutara bete daiteke galdekizuna: zuzenean ikasleei galdetuz, edo irakaslearen behaketa zuzenaren ondorioak aintzat hartuz.

Kideen datuak: Datuen babeserako legea dela eta, ezin dira izen abizenak jarri hemen. Horretarako hemen estekatutako taula erabili behar da, eta proiektua inprimatzen denean, eranskin moduan jarri. (*ikus. 2.1 ataleko taula*)

Ez da komeni taldeko kide bat ere kentzea. Une jakin batean, kide bat ez dagoelako edo dena delako arrazoia dela medio, datuak biltzerakoan kide batek erantzuten ez badu, ez da komeni taldekide hori kentzea, berak besteen inguruko informaziorik emango ez duen arren, bai gainerako kideek informatuko dutela hari buruz. Kenduz gero, besteek ezin dute hura hautatu eta honek taldearen emaitza erabat desitxuratzen du.

3.4 .- Irakasleen ezagutza eta prestakuntza

3.4. Irakasleen ezagutza eta prestakuntza

• Kideen datuak sartu: ez jarri izen abizenak. Hauen ordeaz, kargua edo erreferentzi kodea jarri.

		EZAGUTZA			PRESTAKUNTZA	
#	IRAKASLEA	Ahozkoa	Idatzizkoa	Titulazioa	Jaso al duzu?	Zer
Sartu datuak beheko taulan (?)						
#	IRAKASLEA	Ahozkoa	Idatzizkoa	Titulazioa	Jaso al duzu?	Zer
1		Ezer ere ez	Ezer ere ez		-	
2		Ezer ere ez	Ezer ere ez		-	
3		Ezer ere ez	Ezer ere ez		-	
4		Ezer ere ez	Ezer ere ez		-	
5		Ezer ere ez	Ezer ere ez		-	
6		Ezer ere ez	Ezer ere ez		-	
7		Ezer ere ez	Ezer ere ez		-	
8		Ezer ere ez	Ezer ere ez		-	
9		Ezer ere ez	Ezer ere ez		-	
10		Ezer ere ez	Ezer ere ez		-	

Gorde

Atal hau betetzeko aintzat hartzeakoak:

Kideen datuak: Datuen babeserako legea dela eta, ezin dira izen abizenak jarri hemen. Horretarako hemen estekatutako taula erabili behar da, eta proiektua inprimatzen denean, eranskin moduan jarri. (*ikus. 2.1 ataleko taula*)

Prestakuntza: Azken Branka pasa zenez geroztik euskaraz jasotako edozein prestakuntza mota, edozein ikastaro euskaraz egin bada, alegia. Ez du axola handirik nork eskaini

duen edo ofiziala/ez ofiziala den, euskaraz zerbait egin dela baizik. Hemen ez da zenbat ordukoa izan den neurtzen, ezta kredituak ere.


Datuak beheko taulan sartu behar dira, eta **Gorde** botoian sakatuz, goiko taulan finkatuta geratuko dira. Hainbat kideren datuak gorde ondoren, gehiago sartzeko aukera dago. Datuak goiko taulan kokatu direnean, ezin da aldaketarik egin, baina sarrera hori ezaba daiteke, eta behekoan behar bezala idatzi, berriro.

3.5. Irakasleen mintzagrama

Mintzagrama ahozko erabilera neurtzeko tresna garrantzitsua dugu. Mintzagramak, taldeko harreman-sarea nolakoa den hizkuntza bakoitzean adierazten du, taldearen hizkuntza joera eta intentsitatea. Baliabide honen inguruko argibide gehiago berari buruz egindako txostenean aurki daitezke edo www.ulibarri.info **MINTZAMANUALA** deritzan dokumentuan irakur daitezke, besteak beste: bere funtzionamenduaren zergatia, bertan agertzen diren kontzeptuen inguruko azalpena, erabilitako oinarri matematikoa, etab...


MINTZAGRAMAN datuak sartu ahala, automatikoki, taula honetan agertuko dira.

OHARRA: Datuen babeserako legea dela eta, ezin dira izen abizenak jarri hemen. Horretarako [hemen estekatutako taula](#) erabili behar duzu eta proiektua inprimatzen denean, eranskin moduan jarri.

BRANKA 

[Sarrera](#) | [Azalpenak](#) | [Emitzak](#)

Brankako atalak: [1.1](#) | [2.1](#) | [2.2](#) | [2.3](#) | [2.4](#) | [2.5](#) | [2.6](#) | [3.1](#) | [3.2](#) | [3.3](#) | [3.4](#) | [3.5](#) | [3.6](#) | [3.7](#) | [4.1](#) | [4.2](#) | [4.3](#)

3.5. Irakasleen mintzagrama 

Bete irakasle-talde guztien mintzagramak brankak erabilera indizeak kontuan hartzeko. Komeni da irakasleak multzokatzea harreman sareean arabera (zikloka, etapaka...), horrela informazio aberatsagoa izango dugu.

Bertan duzu [irakasleei banatzeko galdekizun eredu](#)

Atal hau bete aurretik zure ikastetxeko [irakasle taldeen datuak bete](#) behar dituzu.

Atal hau betetzeko aintzat hartzeoak:

Edozein kasutan, irakasle-talde guztien mintzagramak bete behar dira, Brankak erabilera indizeak kontuan hartzeko. Komenigarria da irakasleak ikastetxean sortzen diren harreman sare naturalen bidez multzokatzea, hots: etapaka, zikloka, arloka...

Kideen datuak: Datuen babeserako legea dela eta, ezin dira izen abizenak jarri hemen. Horretarako hemen estekatutako taula erabili behar da, eta proiektua inprimatzen denean, eranskin moduan jarri. (*ikus. 2.1 ataleko taula*)

Ez da komeni taldeko kide bat ere kentzea. Une jakin batean, kide bat ez dagoelako edo dena delako arrazoia dela medio, datuak biltzerakoan kide batek erantzuten ez badu, ez da komeni taldekide hori kentzea, berak besteen inguruko informaziorik emango ez duen arren, bai gainerako kideek informatuko dutela hari buruz. Kenduz gero, besteek ezin dute hura hautatu eta honek taldearen emaitza erabat desitxuratzen du.

3.6. Administrazio eta zerbitzuetako langileak: ezagutza, prestakuntza eta ahozko erabilera

Hemen jaso behar diren datuak langile hauei dagozkie: kirol zein bestelako jardueretako, jantoki edota garraiokoei, sukaldeko zein jantokiko langileei, garbitzaileei, autobus-gidariei, eta abarrei.

3.6. Administrazio eta zerbitzuetako langileak. Langileen ezagutza, prestakuntza eta ahozko erabilera.

Hemen jaso behar diren datuak langile hauei dagozkie: kirol zein bestelako jardueretako, jantoki edota garraiokoei, sukaldeko, garbitzaileak, autobu-gidariak, e

#	Lanpostua	Euskararen ezagutza			Ahozko erabilera Ohiko komunikazio hizkuntza.		PRESTAKUNTZA	
		Ahozkoa	Idatzizkoa	Titulazioa	Euskara	Erdara	Jaso al duzu?	Zer
1	Bulegaria	Ezer ere ez	Ezer ere ez		0	9		X
2	Eskolazaina	Ezer ere ez	Ezer ere ez		0	9		X
3	Kalitate teknikaria	Ongi	Ongi	HE-1	3	6		X

Sartu datuak beheko taulan (?)

#	Lanpostua (?)	Euskararen ezagutza			Ahozko erabilera Ohiko komunikazio hizkuntza.(?)		PRESTAKUNTZA (?)	
		Ahozkoa	Idatzizkoa	Titulazioa	Euskara	Erdara	Jaso al duzu?	Zer
4		Ezer ere ez	Ezer ere ez		0	0	-	
5		Ezer ere ez	Ezer ere ez		0	0	-	
6		Ezer ere ez	Ezer ere ez		0	0	-	
7		Ezer ere ez	Ezer ere ez		0	0	-	
8		Ezer ere ez	Ezer ere ez		0	0	-	
9		Ezer ere ez	Ezer ere ez		0	0	-	
10		Ezer ere ez	Ezer ere ez		0	0	-	
11		Ezer ere ez	Ezer ere ez		0	0	-	
12		Ezer ere ez	Ezer ere ez		0	0	-	
13		Ezer ere ez	Ezer ere ez		0	0	-	

Gorde

Atal hau betetzeko aintzat hartzeak:

Ohiko komunikazio hizkuntza: 0-9ko eskala da. 0 minimoa, ez du erabiltzen; 9 maximoa, beti erabiltzen du. Gogoan izan pertsona bakoitzeko bi hizkuntzak bete behar direla, eta hizkuntza bien baturak 9 izan behar duela.

Kideen datuak: Datuen babeserako legea dela eta, ezin dira izen abizenak jarri hemen. Horretarako hemen estekatutako taula erabili behar da, eta proiektua inprimatzen denean, eranskin moduan jarri. (*ikus. 2.1 ataleko taula*)

Prestakuntza: Azken Branka pasa zenez geroztik euskaraz jasotako edozein prestakuntza mota, edozein ikastaro euskaraz egin bada, alegia. Ez du axola handirik nor eskaini duen edo ofiziala/ez ofiziala den, euskaraz zerbait egin dela baizik. Hemen ez da zenbat ordukoa izan den neurtzen, ezta kredituak ere.

Datuak beheko taulan sartu behar dira, eta **Gorde** botoian sakatuz, goiko taulan finkatuta geratuko dira. Hainbat kideren datuak gorde ondoren, gehiago sartzeko aukera dago. Datuak goiko taulan kokatu direnean, ezin da aldaketarik egin, baina sarrera hori ezaba daiteke, eta behekoan behar bezala idatzi, berriro.

3.7.- Gurasoen ezagutza eta ikastetxearekin ohiko komunikazio hizkuntza

OHARRA: atal hau bete ahal izateko, aurretik **IKASTETXEKO DATU OROKORRAK** atalean **IKASGELAK** azpiatala bete behar da. Bestela, taula hutsik agertuko da.

3.7. Gurasoen ezagutza eta ikastetxearekin ohiko komunikazio hizkuntza						
Gurasoei galdetu ondoren, gelako emaitza orokorrak eman behar dira. Zein da ikasleen gurasoen hizkuntza-ezagutza? Idatzi kopuru absolutuak (zenbaki gordina: ...) dagokion eremuan. Gogoan izan guztiaren baturak ikasle kopuru bera eman behar duela; bestela, errorea emango du.						
Ikasgela	Kopurua	EZAGUTZA			Ahozko erabilera. Ikastetxeekin ohiko komunikazio hizkuntza (?)	
		BIAK EUSKALDUNAK	BIAK ERDILDUNAK	BAT EUSKALDUNA	EUSKARA	ERDARA
HH0-A (2 urtekoak)	18	16	2		8	1
HH1-A (3-4 urtekoak)	18	17	1		8	1
HH3-A (5 urtekoak)	11	10		1	8	1
LH1-A (1. eta 2. mailakoak)	13	12		1	8	1
LH3-A (3. mailakoak)	10	9	1		8	1
LH4-A (4. mailakoak)	8	7		1	8	1
LH5-A (5. eta 6. mailakoak)	18	17	1		8	1

Gorde

Atal hau betetzeko aintzat hartzekoak:

Zein da ikasleen gurasoen hizkuntza-ezagutza? Gurasoei galdetu ondoren, gelako emaitza orokorrak eman behar dira. Idatzi kopuru absolutuak (zenbaki gordina: 10, 11...) dagokion eremuan. Gogoan izan guztiaren baturak ikasle kopuru bera izan behar duela; bestela, errorea emango du.

Ohiko ahozko komunikazio hizkuntza 0-9ko eskala da: 0 minimoa, ez du erabiltzen; 9 maximoa, beti erabiltzen du. Gogoan izan pertsona bakoitzeko **bi hizkuntzak** bete behar direla, eta **hizkuntza bien baturak 9 izan behar duela**.

4.- Gelaz kanpoko jarduerak

Eremu honetan presentzia eta erabilera neurtzen dira eskolaz kanpo antolatzen diren ekintzetan; **4.1. Eskola eragile** atalean eskolak berak antolatzen dituen jarduerak behatzen dira, **4.2. Elkarrekin/Erakundeak eragile** atalean, berriz, kanpoko erakundeek antolatzen dituzten jarduerak.

Alde batetik, jarduera zein hizkuntzatan (euskaraz, erdaraz edo ele-bietan) prestatzen/eskaintzen den aztertu behar dugu, hau da **Presentzia** deritzoguna. Gogoratu erdara euskara ez den edozein hizkuntza (gaztelania, frantsesa, txinera, arabiera..) dela.

Bestetik, **Erabilera** neurtzen da jarduera horretan ikasleek zenbatean erabiltzen duten euskara, ehunekotan adierazita. Gogoan izan, nahi duenak erabilera ez formalaren behaketa eta metodologia erabil dezakeela.

Kontuan hartu: Hizkuntza bateko erabilera %100 edo %0 ez bada, presentzia beti neurtu behar da ele bietan.

4.1. Eskola eragile

4.1. Eskola eragile

Alor bakoitzean, jarduera zein hizkuntzatan pre (ehuneko kopurua aukeratuz)

	Presentzia	Erabilera
Jolasaldiak	-----	-----
Jantokia	-----	% 5
Sarrera, irteerak	-----	% 10
Autobusa	-----	% 15
Jaiak, ospakizunak	-----	% 20
Irteerak	-----	% 25
Egonaldiak	-----	% 30
Eskola-kirola	-----	% 35
Aisialdia	-----	% 40
Bestelakoak	-----	% 45
		% 50
		% 55
		% 60
		% 65
		% 70
		% 75
		% 80
		% 85
		% 90
		% 95

Gorde

4.2. Elkarteak/Erakundeak eragile

4.2. Elkarteak/Erakundeak eragile

Alor bakoitzean, jarduera zein hizkuntzatan prestatzen/ (ehuneko kopurua aukeratuz)

	Presentzia	Erabilera
Jaiak, ospakizunak	-----	-----
Irteera-egonaldiak	-----	-----
Udalekuak	-----	-----
Aisia, kirola	-----	-----
Erakundeen esku-hartzea	-----	-----
Erligio-jarduerak	-----	-----
Musika	-----	-----
Bestelakoak	-----	-----

Gorde

OHARRA: erabilera ez formalaren behaketa egiteko tresneria eta azalpenak ondoko irudian agertzen den estekan topa daitezke:

IKASTURTE HONETAKO DATU OROKORRAK 📄 📋 **IKASTURTEKO PLANA ETA MEMORIA**

- [Ikastetxeko datuak](#)
- [Ikasle Batzordea](#)
- [Guraso Batzordea](#)
- [HNATaren datuak](#)
- [HNBren osaera](#)
- [Ikasgelak](#)
- [Irakasle taldeak](#)

DIAGNOSI TRESNAK **FITXATEGI BILTEGIA**

- [Branka](#)
- [Mintzagrama](#)
- [Gela-arqazkia](#)
- [Erabilera eremu informalean](#)

Gehitu hemen nahi dituzun fitxategiak.
OHARRA: Hemen gehitzen diren fitxategiak ezin

Fitxategia

4.3. Udalerria

4.3. Udalerria	
	Balioa
Euskaldunen Proporzioa	36.38
Euskaldun alfabetatuen proporzioa	85.93
Jatorrizko euskaldunen proporzioa	18.72
<input type="button" value="Gorde"/>	

Kontzeptuen azalpena:

Euskaldunen proporzioa: 2 urtetik gorako biztanleen artean zenbat diren euskaldunak (ehunekoa).

Euskaldun alfabetatuak: euskaldun horietatik zenbat diren alfabetatuak (ehunekoa).

Datu hauek topatzeko bi ibilbide:

1. BIDEA: UDALERRIEN ZERRENTA

www.eustat.es
-Gaiak
Gizarte
Euskara, kultura eta gaztedia
Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak
[2 urteko eta gehiagoko biztanleria, lurralde-eremuaren eta euskara-maila orokorraren arabera. 2006](#)

Bertan aurki daitezke bai Lurraldeka, bai Eskualdeka eta baita Udalerrika. Behar duzuen udalerria aurkitu, eta guztira dituen **Euskaldunak** agertuko zaizkizu, biztanleekin alderatuta ehunekoa kalkulatu beharko duzu.

Gauza bera egin beharko duzu **euskaldun alfabetatuekin**, guztira dauden euskaldun kopurua eta guztira dauden alfabetatuak parekatuz, azken hauen ehunekoa kalkulatu beharko duzu.

Jatorrizko euskaldunen proporzioa: biztanle guztien artean zenbatek duen euskara ama-hizkuntza (ehunekoa). Udalerri horrek guztira dituen biztanle kopurua eta guztira ama-hizkuntza euskara dutenen arteko ehunekoa kalkulatu beharko duzu.

www.eustat.es
-Gaiak
Gizarte
Euskara, kultura eta gaztedia
Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak
[Biztanleria, lurralde-eremuaren, ama-hizkuntzaren eta etxean hitz egiten den hizkuntzaren arabera. 2006](#)

2. BIDEA: UDALERRIKA

www.eustat.es Udal informazioa

Udaletako datuen atal honek tresna malgua izan nahi du gaur egungo egoera estatistikoa eta bilakaera historikoa ezagutzeko Euskal AEko 251 udal Adierazle kopuru zabal bat eskaintzen da hemen udal bakoitzarentzat, aukera emanez haietako bakoitzari buruz dauden datu guztiak kontsultatzeko.

Gehiago irakurri

Taula: Udal informazioa

Markatu zure hautapenak eta aukeratu pantailako taularen eta fitxategi formatuaren artean. [Hautatzeko trikimailuak](#)
Gutxienez balio bat hautatu behar duzu hautatutako aldagai bakoitzerako

Euskal AEko udalerriak	Adierazle guztiak	aldia
Guztira:251. Hautatua: 1	Guztira:239. Hautatua: 1	Guztira:34. Hautatua: 1
<ul style="list-style-type: none"> Elgoibar Elorrio Elvillar/Bilar Erandio Ereño Ermua Errenteria Errezil Erriberagoitia/Ribera Alta Errigoiti Eskoriatza Etxebarri Etxebarri, Anteglesia de San Esteban-E Ezkio-Itsaso Forua 	<ul style="list-style-type: none"> +BIZTANLERIA Biztanleria guztira Gizonezkoak Emakumezkoak 0-19 20-64 >64 _Biztanleriaren dentsitatea +FAMILIAK, MOTAREN ARABERA Famili kopurura Pertsona bakarrekoa Konposatua Gunea seme-alabarik gabe Gunea seme-alabekin Guraso bakarrekoa 	<ul style="list-style-type: none"> 2008 2007 2006 2005 2004 2003 2002 2001 2000 1999 1998 1997 1996 1995 1994
Bilatu <input type="text"/> <input type="button" value="➤"/> <input type="checkbox"/> Testua hasiera	Bilatu <input type="text"/> <input type="button" value="➤"/> <input type="checkbox"/> Testua hasiera	

Aukerako urteak hautatutako adierazlearentzat

1981, 1986, 1991, 1996, 2001, 2006

hautatu aukera bat eta sakatu

Bertan **udalerrria aukeratu** lehen taulan eta bigarrenetik **+ BIZTANLERIA Biztanleria guztira**. Gogoan hartu kopuru hau ondorengo datuekin alderatzeko.

Udalerrri berean eta bigarren taulan (ikus. behealdeko irudia) **+2 URTE EDO GEHIAGOKO BIZTANLEAK Euskaldunak** adierazlea aukeratu, Euskaldunen kopurua agertuko zaizu, biztanleekin alderatuta ehunekoa kalkulatu beharko duzu.

Gauza bera egin beharko duzu **euskaldun alfabetatuekin**, guztira dauden *Euskaldun* kopurua eta guztira dauden *Alfabetatuak* parekatuz, azken hauen ehunekoa kalkulatu beharko duzu.

Branka betetzeko jarraibideak

Udaletako datuen atal honek tresna malgua izan nahi du gaur egungo egoera estatistikoa eta bilakaera historikoa ezagutzeko Euskal AEko 251 udaletan. Adierazle kopuru zabal bat eskaintzen da hemen udal bakoitzarentzat, aukera emanez haietako bakoitzari buruz dauden datu guztiak kontsultatzeko.

Gehiago irakurri

Taula: Udal informazioa

Markatu zure hautapenak eta aukeratu pantailako taularen eta fitxategi formatuaren artean. [Hautatzeko trikimailuak](#)
Gutxienez balio bat hautatu behar duzu hautatutako aldagai bakoitzerako

Euskal AEko udalerrriak	Adierazle guztiak	aldia
Guztira:251. Hautatua: 1	Guztira:239. Hautatua: 1	Guztira:34. Hautatua: 1
Elgoibar Elorrio Elvillar/Bilar Erandio Ereño Ermua Errenteria Errezil Erriberagoitia/Ribera Alta Errigoiti Eskoriatza Etxebarri Etxebarri, Anteglesia de San Esteban-E Ezkio-Itsaso Forua	___Goi-mailakoak +2 URTE EDO GEHIAGOKO BIZTANLEAK ___Euskaldunak ___Euskaldunak. Alfabetatuak ___Euskaldunak. Erdizka alfabetatuak ___Euskaldunak. Alfabetatugabeak ___Ia euskaldunak ___Ia alfabetatuak ___Ia alfabetatugabeak ___Ia pasiboak ___Erdaldunak +AMA-HIZKUNTZA ___Ama-hizkuntza. Euskara ___Ama-hizkuntza. Gaztelania ___Ama-hizkuntza. Biak	2008 2007 2006 2005 2004 2003 2002 2001 2000 1999 1998 1997 1996 1995 1994
Bilatu <input type="text"/> <input type="checkbox"/> Testua hasiera	Bilatu <input type="text"/> <input type="checkbox"/> Testua hasiera	

Aukerako urteak hautatutako adierazlearentzat

1981, 1986, 1991, 1996, 2001, 2006


hautatu aukera bat eta sakatu

5.- Emaitzak

5.1 Emaitzak ikusi

Emaitza guztiak ikus ditzakegu, bai bere osotasunean bai atalez atal.

Guztietan ikus daitezke Presentzia/Ezagutza indizea, Erabilera indizea (bai ahozkoa eta bai idatzia) eta bien arteko erlazioaren balioa.



Emaitza hauetan oinarritutako hausnarketatik abiatuta, 4 urteko Hizkuntza Normalkuntza Proiektua diseinatzen da, eremuz eremu.